

Gai ordena:

- 1- Ur depositoko tuberia**
- 2- Bizikleta biltegia**
- 3- Kurtso amaierako balorazio txikia**

1- Ur depositoko tuberia

Erein-eko dirulaguntza eskatuta dago. Beste dirulaguntza bat eskatuko da proiektuko lehenengo tramo bat egiteko aurten. Hasierako tramo hori amankomuna da alternatiba guztien artean. Alternatiba ezberdinak ikusi ditugu baina ez daukagu argi zein dan hobereena. Horregatik "Estudio de alternativas" delakoa egiteko eskatuko zaio ingenieritza enpresa bati. Lantaldeko gehiengoak uren azpiegiturak ahalik eta adar independente gehien edukitzearen alde azaldu da, nahiz eta aukera hau garestiagoa izan.

2- Bizikleta biltegia

Bi aurrekontu daude mahaigainean. Lehenengoan Urbilekoek egingo lukete biltegiaren itxitura. Beste aurrekontua itxitura egiteko materialarena besterik ez da eta itxitura bera auzolanean egingo litzateke. Bigarren aukera honek indar gehiago dauka.

3- Kurtso amaierako balorazio txikia

Kurtso amaiera denez lantaldearen lan dinamika nola hobetu eztabaidatu da. Hainbat ondorio:

- Lan pendienteen jarraipena hobetzeko bileretan errepasatuko genuen zerrenda orokor bat sortu eta mantendu beharko genuke.
- Udaleko arkitektoa lanez gainezka dabil eta lantaldean sortzen diren eginkizun batzuk burutzea zaila izaten da. Laster Legorretarekin batera arkitekto plaza sortuko da eta gure kasuan lanordu kopurua bikoiztu egingo da, espero dugu horrek eragin positiboa izatea gure dinamikan.